



## ARGIA ENGLISH

# Euskal Herria ingelesez, etxetik nazioarteari kontatuta



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria

Ez beldurtu, kurtso berriarekin ez dugu astekaria bi hizkuntzatan irakurtzen hasi beharko. Hilabete batzuk badira lehen artikulua, albiste eta erreportaje bakanak ingelesera itzultzen hasi zirela. Markak hautsi zituen Korrikari buruzko erreportajeak, auzolanean 40 hizkuntzataraz itzulita. Helburua garbia da, nazioarteari Euskal Herritik kontatzea gurean gertatzen direnak. Ezaguna baitzaigu hemengoari buruz kanpotik idaztea, informazio osorik gabe eta askotan interesak tarteko.

Orain arte egindako itzulpenak sarean zabaldu dira, eta ARGIAk Creative Commons lizentzia librearekin funtzionatzen duenez, nazioarteko hainbat hedabiderek harremana du eta haiek ere zabaldu dituzte testu horiek.

Ingelesera itzulitako lehenengo artikulua horiek izandako harrera eta arrakasta ikusita, maiztasun jakin batekin itzulpenak argitaratzen hasi da ARGIA Aritz Branton 11 itzulpen enpresako kidearen laguntzarekin: Brantonek bi

erreportaje itzuliko ditu ingelesera hila-betean, eta sarean zabalduko dira. Itzul-tzaileak antzeko lanen bat egin du, baina gustura hartu du ARGIAko artikulua lantzeko erronka. Testu hauek aztertu eta lantzeko aukera zabala emango diotela esan digu, eta lan "interesgarria" izango dela pertsonalki ere.

Estreinako itzulpena egin du dagoneko, Katalina Erasoren pastoralari buruzko erreportajea. Hemendik aurrerakoak zein diren ezagutzeko sarean jarraitu beharko dituzu, irakurle: [www.argia.eus/english](http://www.argia.eus/english) helbidean dituzu artikulua eta bideo denak. Eta @ArgiaEnglish kontua jarrai dezakezu Twitterren eta Facebooken.

Imajinatzen al duzu Euskal Herriaz idazteko Euskal Herriko iturriak erabiltzen dituen nazioartea? Gurea guk azaldua? Pauso bat da ARGIAk emandakoa, eta ederra izango litzateke indarguztiak norabide horretan joatea "Basque Country" guk eraikitzeke. Bitartean, ARGIAk txikitik eragiten jarraituko du. ■

## Azalaz azaleratuak



Kattalin Minerrek horrela osatu zuen eztabaidari bide eman zion mezua "esan gabe doa, artikulua bikaina dela eta Erasuo ekartzea eskertzekoa. Baina atentzioa deitzen dit, gurekin hainbeste BAINA izatea beti. Hots, gure idolo eta transgresoreekin askoz ere exijenteagoak garela, idolo unibertsal eta patriarkalekin baino".

Axier Lopezek erantzun zion: "Ados nago 'gureak' ez diren kasuetan zer goraipatzen den ta zer 'nahita' ahaztu, baina ez dut uste eredu hori kopiatu behar denik".

Minerrek emandako errematea: "Nik ere ez, e? Erasok... tel! Baina, gehiago etorri zaizkit besteekin ez ditugun exijentziak burura. Kaña denei eta hil idoloak!".

## 2016ko diru-laguntzen zain, urtea luze

Eusko Jaurilaritzak, astekariari eta web-guneari dagozkien diru-laguntzen lehen ordainketa urri bukaeran egingo duela espero dugu (diru-laguntzetan landu dituzten irizpide aldaketak izan omen dira atzerapenaren kausa). ARGIArentzat diru-laguntza hauek oso garrantzitsuak dira, gure aurrekontuaren %40. Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, lehen ordainketa abenduan egingo duela jakinarazi du (kasu honetan, Aldundiak Europari eskatutako baimen juridiko berezi bat omen da prozesua atzeratu duena). Zer dakar ARGIAk diru-laguntzetatik aurten oraindik ezer jaso ez izanak? Bada gure aktibitate osoa tentsionatu duela ikuspegi ekonomikotik. Egoera honek behartu gaitu ezohiko kontu kreditu bat eskatzera, eta horren kostuei erantzun behar izatera. ARGIAren jarduera egoki joan dadin, lehen ordainketa uztailerako jasotzea da beharrezko.